BIZITEGI ERAIKINA — HONDARRIBIA 22

D MAILA





Egileak eta data: Jose Maria Mujica eta Jose Clemente de Osinalde; 1890

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina, bastardea (hasiera batean erdisotoa eta bastardea) eta hiru goi oin dituena, gehi 1938ko hiru jasodura (lehena fatxada planoan eta beste biak atzeraemanak). Jasoduretan aldatu egin da baoen ordena. 1938an profila eta behe oineko baoak ere aldatu ziren. Harlanduzko fatxada 1., 2. eta 3. oinetan, eta hormigoizko begiratokiak eskuinaldeko baoan. Behe oina aldatua eta xaflatuta.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (4., 5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira gainerako irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen (balkoiaren altueraraino) konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.